

Primer premio, compartido, Concurso de Artículos de Humor, Poesía y Ensayo, en euskera, Pyrenaica 1986

Buru garbi argitsua

Modesto Arrieta

A SPALDIDANIK daukat buruan, orain dela urtebete neri gertatutakoa baina alper samarra naizenez eta beti ospea besteek daramatenez ez naiz ausartu orain arte gertakizun hura kaleratzea eta garaia dela uste dut.

Zer arraio! ... Beti Everest, K2, Nanga Parbat, ... Himalayako erraldoiak alde batetik, Pirineoak bestetik eta hemen Txindoki, Gorbea, Aitzgorri... eta gu zer? Pot-tokiak al gara ala?

Zer demontre! ... Guri ere gertatzen zaizkigu nahiko gauza bitxi eta interesgarriak, gure anaia handiei hainakoak, eta bada ordua jendeak jakin dezan makina bat mendizale ibiltzen dela gure maldetan zehar, alde batetik bestera, gora eta behera gure bideak urratu nahiean, gailurrak lortzeko asmoz.

Ez dira ez ipar-orratzaz baliatzen ezta janari liofilizatuez baina hori bai, satoa eta ogitartekoa ez dira faltatzen beraien motxiletan.

Zer gehiago behar da bada, igande goiz zoragarri bat elkarrekin igarotzeko?

Hona hemen bada, mendi apal batek Iraileko igande sargori batetan bizi izan zuen gertakizuna; hona hemen «Arno» izeneko mendiaren historitxoa, nere historitxoa:

Larunbata: Espedizioaren antolaketa

Arratsaldeko zortzirak dira eta Euskal Herriko herri guztietan bezalaxe, kostaldeko herri eder horretan jendea barra barra dabil kalean, bere kirol ezagunetako bat praktikatzeko. Talde handiak, txikiak, hirunaka, seinaka, hamarnaka, koadrilak aurrera eta atzera dabilta, gora eta behera, batetik bestera: «Txikiteo orokorra».

Jendea alai dabil eta denetik entzuten da, futbola, eguraldia, arrantza, estropadak, apustuak, politika...



Santi Yaniz argazkia.

Halako batetan, koadrila batek beste bi tipoekin topo egin eta oihu handiz hitzegiten hasten dira:

- Hi, bihar, joan behar al diagu?
- Duda ala? Guk egin diagu plana.
- Nora?
- Arno-ra.

Nere izena entzun nuenean, bihotzak brinko bat egin zidan eta aho zabalik eta belarriak zutik, erne gelditu nintzen nitaz zer esango zuten jakin nahiean.

—Non dago hori? Entzuna zeukat baina ez zekiak non dagoen.

—Hi!, badakik, ni joatekotan «por dón-de pisa la vaca». Neri adarrak jo gabe eh!...

—Bai motel, lasai, Mendaron dagoen mendi txiki bat duk eta.

—Baina behin ere izan al zarete?

—Ez, baina asmatuko diagu. Noizean behin ere abentura pixka bat ez duk txarra izaten.

—Fernandok esan dik badatorrela, Jose Juan ere bazetorrek, nik anaiari esango ziot eta bihar erabakiko diagu zenbat auto eraman.

—Zerbait eraman behar al diagu?

—Beti bezala: ogitartekoa, nik ura, Albertok satoa eta bada ez bada ere txamarrara.

—Hi Alberto, satoa ahaztu gabe eh?

—Eguraldi honekin ez huen txarra izango gaitza motxetan joatea!

—Hori bakoitzak ikus dezala.

—Bueno, bihar 8-retan betiko lekuan, bale?

—Bale... baina ZOR-TZI-RE-TAN.

—Noski, beti bezala ja!... ja!...

Ni harriturik nengoen, ez bait nenkien zer egin, zer pentsatu... Alde batetik poz handia sentitzen nuen nitaz norbait oroitzen zelako baina bestetik ez nien mendizale itxura handirik ematen, ez bait ninduten ezagutzen. Hala ere pixkanaka alaitu egin nintzen, igande hura besteak bezain aspergarria ez zela izango pentsatuz.

Larunbat hartan ez nuen beste ezer egin. Burua gauza bakar batentzat neukan, ezin nuen elkarrizketa hura burutik kendu eta ia konturatu gabe ilundu eta ilargia keinuka hasi zitzaidanean loak hartu ninduen.

Ilgandea: Hurbiltze bidea

Badirudi arratsean bizi izan nituen kezak eta itxaropenak urduri jarri nindutela eta hurrengo goizean, hegazkin batek zeru urdina zeharkatu zuenean egin zuen zaratak esnatu ninduen. Behin ere baino lehenago esnatu eta nagiak ateratzen ari nintzen bezain laister konturatu nintzen egun hura niretzat berezia izango zela.

Benetan pozik nengoen eta egundoko gosaria prestatu nuen. Eguraldi zoragarria zetorren eta goiz goizetik eguzkiak indarrez besarkatzen ninduen. Eguerdian gehiegil... pentsatu nuenean, nere lagunaren lehenengo ohiuek sortalderuntz bira arazi zidaten burua:

—Egun on! Eguraldi zoragarria zetorrek eh!...

—Bai, ederra bota behar dik... Nik galtza motxak ekarri dizkiat.

—Bazetorrek Jose Juan. Jodo... bota handiekin...

—¡Buenos días por la mañana!... ¿Qué? ¿No han venido los demás?

—Hombre... como siempre, los últimos siempre los mismos.

—¡Mira!... ya viene Fernando.

—Alberto ere bazetorrek...

—Satoa ekarri al duk?

—Bai, bai... lasai... Zenbat gara? 1, 2, 3, 4, 5, 6. Bi auto.

—Juan Luis eta Mikel Albertorekin y vosotros conmigo.

—¡Oye!... ¿por dónde vamos?

—Lo mejor será ir por la autopista hasta Elgoibar. La vuelta ya la haremos por la normal.

—Hi! atzo Errealak zer?, Athletic-ek bai eh?...

—Beti bezala, azken minutuan galdu. Ba al dakik beste bat garbitu zutela atzo Bilbon?

—Bai, ikusi diat egunkarian.


—Zer... ba al goaz?

—Goazen bada...

Bazatoztik, bazatoztik... saltoka hasi nintzen. Benetan zoratzen nengoen eta une hartan Everest baino harroago sentitzen nintzen eta gosaldutik ondoren inoiz baino hobeto apaindu nintzen.

Honezkero Itziar atzean utzi eta laister izango dituk hemen. Ah! ez! egia!... Elgoibarretik zatostik eta... Beno, laurden gutxirako Mendaron dituk, hiru ordu laurden leporaino igotzeko eta beste hainbeste goraino. Baina auskalo, itxura horrekin igoko al dira leporaino? eta gaur egiten dikan beroarekin, GIZARAJOK!...

Berriro ere gurutzeari hautsa kentzen ari nintzenean, han behean, Mendarako kale nagusian ikusi nituen bi autoak. Nik pentsatu nuen bezalaxe: 9-rak laurden gutxi ziren...



Santi Yaniz argazkia.

Goruntz

—Zer... dena hartu al duzue?

—Hi Alberto!... satoa?

—Bai motel, bai. Egiten dikan beroarekin laister epelduko duk.

—¡Oye!... ¿por dónde subimos? Tendremos que preguntar a alguien.

—¡Si sólo esta calle va para arriba! Tíeneme que ser por ahí.

—Jodo, jodo... hasi baino lehen galdu ta. Ipar-orratza ekarri al duk?

—Ez al dituk jantzi behar galtza motxak?

—Lasai, gero jantziko dizkiat eta...

—¡Ah!... le da vergüenza. ¡Con las cachas que tiene!...

—Eta motxila?

—Nik eramango diat.

—Ez, ez, neri utzi.

—Eh!... ez zaitzete haserre. Txandaka eramanez eta kitto...

—Hik ez al duk eramanez behar?

—Hori gazteentzat duk guk zahartzen hasiak gaituk.

—Hik dituk hik...

Ordu laurden bat egon dituk oinez hasi baino lehen baina tira, animatu dituk eta bidea ondo hartu ere bai.

Berriro ere urduri jartzen hasia nengoen, ez nenkielako nola moldatuko ziren, gailurreraino iritsiko ote ziren edo bidean porrot egingo ote zuten.

Dena dela, itxaropenez ikusten nuen ibilaldi hura. Motriku aldetik ere inor ez zen ageri eta bazirudien, bero harekin, jendeak hondartza aukeratu zuela igande sargori hura igarotzeko eta lagunarte honen ausardia ikusiz, animatzen hasi nintzaizen: Eutsi mutilak!...

—Hara!... Autopiste azpitik pasatu behar diagu... eta auto horiek nora dihoaz hemendik gora?

—¡Hi!... ez dituk autoz igoko goraino bada...

—Ikusten al duzue han goian?

—¡Ahí va la leche!... ¡Si es el campo de fútbol!... jodo, como se caiga el balón...

—Futboleantzen ari dituk... Goizeko bederatziretan!... hori morala!...

—Beraiek ere gutaz gauza berbera esango die...

—Hi!... eta orain zer? Bi bide zeudek...

—Ezkerreruntz jo, lepo hartara igo behar diagu ta...

—Eskerrak!... itzal pixka bat... Ni hasi nauk izerditzen.

—Yo me quito el niki... estoy empapado... dame un trago de agua que me deshidrato.

—Agua, agua... Ekarri ezak satoa, oraindik freskoa egongo duk eta.

—Hi!... satoa pasa eh!... hestutu ederra eman diok eh!...

—Ezpainak bakarrik buzti dizkiak eta...

—¡Cómo está el agua! Me la bebía toda.

—Hara!, hara!... inglesa ematen dik...

—Hik parre egin ezak baina ni «como Dios» galtza motxetan.

—Nik ere nikia kendu behar diat.

—Kriston beroa egiten dik eh?... gaur urtuko gaituk...

—Beste hainbeste... hara!... hura baziek!... sartu dik «directa».

—¡Animo, muchachos, que ya llegamos al collado!

Hego lepoan

Iritsi dituk leporaino. Ez zegoek gaizki: ordubete. Makalak ematen die baina nahiko ondo moldatzen dituk. Gainera nabari da igandero mendira irtetzen direla: bota onak, txapelak... eta nahiz eguraldi hau egin, bada ez bada ere, motxilan txarrak dakarkite.

—Buena cuesta, ¿eh?

—¡Agua!... ¡agua!..., que estoy ahogado.

—Ikusten al duk hori? Honezkero kilo pare bat galdu dizkiak.

—¡Qué!, se suda más que en la sauna, ¿eh?

—¡Jodo!... si lo sé no vengo...

—Venga, hombre, que no es para tanto.

—¡Pa...sando la bota!

—Hori ere zalea duk, eh?

—Buff... ¡si está caliente!...

—Ikusten al duzue zer bista ikusten

den? Benetan zoragarria zegoek!...

—Bueno, seguimos o qué... que se nos enfría el hamaiketako.

—Noruntz jo behar diagu?

—Iparrenruntz.

—Hi!... neri esan diak eskubira ala ezkerre...

—Baina ez al duk ikusten non dagoen itsasoa? Eskubira, eskubira.

—Aurrera bada...

Gailurrari erasoaldia eta...

Orain sei lagunak hurbil ikusten nituen eta egia esateko ez zuten mendizale itxura handirik baina hala ere gogotsuak eta nahiko indartsuak ziren (sokatarako 500 kilotako seikote polita) nahiz eta gazteenak 35 urtetik gora izan, eta zaharrenak?... auskalo zenbat... eta gainera zer ajola, bazetozen, poliki-poliki hori bai, baina bazetozen eta horixe zen neretzat garrantzitsuena.

—Bidea horrelakoa izan behar zian, ordeka eta zabala.

—Bai, eta tartean-tartean taberna, ez da?

—Hainbeste ez diat eskatzen, baina gutxienez maratoian egiten dutena, tarteka-tarteka edari puesto bat.

—Zuek daukazue roiloa!... Horrela ez gaituk inoiz goraino helduko.

—Haral!... monolitoa. Horra jo behar diagu.

—Eta gurutzerik ez al dago?

—Bai, baina aurrerago; hemendik ez duk ikusten.

—Hi!... bideak ezkereruntz jotzen dik. Zer egingo diagu?

—Nik zuzenean hartuko nian, bertan zegoek eta...

—Haral!... hemen beste bidezidor bat zegoek.

—Jarrai ba hortik!

—Eta orain?, bidea itxi egiten duk.

—Ezin al da beste alderaino pasatu?

—Pasa, pasa bai baina zazia, arantzak... oso zikina zegoek!...

—Ai!... Ai!... Ai!...

—Zer duk?

—Jode... jesukristoerenak ari nauk pasatzen. Behin jarriko nauk galtza motxetan eta zazi artean ibili behar...

—Ai!... Ai!... Ai!...

—Orain bestea. Jodo!... hatzamarka ederrak dauzkak bizkarrean.

—Arantza alu horiekin egin dizkiat.

Neretzat gehiegi izan zen eta parrez hasi nintzen. Nere algarak bazter guztietan entzuten ziren oiartzun baten ohiuak izango balira bezala eta une batetan pentsatu nuen nere lagunak ohartu egin zirela, isilik gelditu bait ziren...

—Bueno, ¿qué hacemos?

—¡Seguir!... ¡No vamos a quedarnos aquí!...

—Ni aurreratuko nauk, hor nola dagoen ikustera.

—Eh!... etorri!... bide bat zegoek!...

—¡Menos mal!... ¡Vaya calvario!...

—Hi!... bide hau behera ez al doa?

—Bai, bai... hemendik ere jai zegoek.

—¡Mecagüen la puñeta!... hor bertan zegoek eta ezin...

—Inor ez duk ibiliko eta jakina, bideak galdu egiten dituk.

—Beno, zer? Zerbait erabaki behar diagu.

—Zuzenean ez al dugu intentatuko?

—«Ni pa Dios»!!!... Ni hor ez nauk berriz sartzen.

—Orduan zer?

—Neregatik etxeruntz.

—Yo también.

—Ni ere bai.

—Eta ni.

—...

—Beno, goazen ba...

Goibel jarri nintzen etxeratzeko erabakia hartu zutenean. Gailurretik hain hurbil eta ezin aurrera jo. Gero esango dute mendi harro horietan bakarrik dagoela arriskua gailurrera ez iristeko baina hemen ere gertatzen da, zer arraio!...

Hala ere, ia ia nire laguntza eskaini nien baina une berean damutu egin nintzen; norberak aurkitu behar ditu bide egokiak eta ezin denean ezin da eta kitto! Gainera, lehenengo ekinaldian ez badute igo, biga-

rrean igoko dira... baina berriro etorriko al dira?

—Jode!... hobe litzateke Mendarotarrak, futbolean hainbeste egin gabe, mendian pixkat gehiago ibiliko balira...

—Bai motel, nik ere ezin diat ulertu nola dagoen itxia bidea.

—Eta hamaiketakoa zer? Ez garelako tontorrera iritsi ez gaituk jan gabe geldituko ba!

—Erdi bidean ikusi ditugun zuhaitz haietan itzalean geratuko gaituk.

—...12ak... ordu ona zertxobait jateko.

—¡Oye!, ¿tienes tiritas?

—Tiritas y esparadrado y mercromina y aspirinas y manteca de cacao... pero, ¿tú qué te crees?... ¡qué estamos preparados!... ¡ah!... y bolsas de basura para no dejar los desperdicios en el monte.

—Hi!... menbriloa pasa ezak... ogitartekoa ere ondo sartzen duk ba, eh?

—Oye, ¿sabéis lo que os digo?... que estoy de puta madre. ¡Si no fuera por el agua!...

—Jose!... behean, taberna guztiak uz-tuko dizkiagu...

—Eta datorren igandean nora?

—Pagoetara!

—Beti Pagoetara, beti Pagoetara... toki desberdinak behar dizkiagu... Euskal Herrian mendia besterik ez zegoek eta.

—Nahi dukena, baina gutxienez zazi gabeko bideak eh?

—Honek zerbait pentsatuko dik. Ah!... eta ez bagara ikusten, badakizue, 8-retan betiko lekuan.

Han jaitxi ziren bizkor kantari, Mendaro bitartean egundoko «menuak» osatzen. Gero Mendaro, Deba, Itziar eta beraien herriko bitter guztiak edan zituzten.

Une hartan geldirik eta isilik geratu nintzen, indarrrik gabe, plakiak jota, koadrila xeble horretaz pentsatzen...

Etorriko al dira berriz?... galdetzen nion behin eta berriro nere buruari. Agian ez dira gehiago azalduko baina, ez dakit zergatik, nolabaiteko itxaropena baneukan. Ez dituk gurutzerara igo gabe geldituko ba... Agian, datorren urtean...

ARNO (610)

Oharra:

Nere lagunak, niregana hurbiltzeko, Miguel Angulo-ren «Euskalerriko mendiak: 300 ibilbide zazpi probintzietan zehar» liburuan 124. orrialdean azaltzen den eskemaz bakarrik baliatu ziren.

Azken berriak:

Orain dela 2 hilabete Arno mendia hego aurpegitik igotzerakoan huts egin zuen espedizioak, gailurra lortu du.

Azaroko igande euritsu honetan jarraitu duten bidea ipar aurpegia alegia, lehenengo aldiz erabiltzen da (beraiek noski) gailurra lortzeko. ZORIONAK.




Foto: Gipuzkoa. Excursiones y paseos. 1.